

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 340/2021 irailaren 10ekoa. 2021eko "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren deialdia onestea

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eginkizunetako bat da artisauen sektorea sustatzea.

Aurreko urteetan bezala, Arabako Foru Aldundiak "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren beste deialdi bat egitea aurreikusi du, artisau jarduera sustatzeko eta artisau sektorea garatzen duten langileen ezagutza eta esperientziak bultzatzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren deialdia 2021erako, eta bideratzea 4.320 euro sariak ordaintzeko.

Bigarrena. Lehiaketaren deialdia arautuko duten oinarriak onestea. Xedapen honi erantsi zaizkio.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 30.5.02.36.02.226.99.00 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 21.1.21.105.3067/000) ordainduko dira sariak.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioge Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 10a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA**2021EKO "BLAS ARRATIBEL" ARTISAUTZA LEHIAKETAREN OINARRIAK****1. LEHIAKETAREN HELBURUA**

Lehiaketa honek artisautza alorreko jarduerak sustatzea eta bultzatzea du helburu, "Blas Arratibel 2021" sariak emanda deialdian ezarritako modalitateetan.

2. EREMUA ETA PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Trebiñuko Konderrian erroldatuta daudenek eta deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenek soilik hartu ahal izango dute parte lehiaketan.

3. MODALITATEAK

Lehiaketak bi modalitate ditu, eta modalitate bakoitzari sari bat esleituko zaio:

A modalitatea: artisau izaera aitortuta duten pertsonentzako saria.

B modalitatea: artisau izaera aitortuta ez duten pertsonentzako saria.

Parte hartzaileek obra bakarria aurkeztu ahal izango dute dagokien modalitatara.

Parte hartzaileak obra dagokion modalitateaz bestelako batean aurkezten badu, pieza lehiaketatik kanpo geratuko da.

Aurkeztu beharreko lanek edo piezek forma klasiko ezagunak erreproduzitu beharko dituzte, historikoki erabilitako materialak eta teknikak erabilia, edo artisautza tradizionalan erabilitako ekoizpen edo prozedurak errespetatuta, estetikoki tradizionalak ez diren emaitzak lortu beharko dituzte, material berriak, antzekoak edo berdinak erabilia.

Adierazitako edozein modalitatetara aurkezten diren piezak edo lanak multzo bereko elementu batek edo gehiagok osa ditzakete. Azken kasu horretan, elementu multzoa pieza edo lan bakartzat joko da.

4. BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

Lanak aurkezteko unean, lana edo piezaz gain, gutun azal itxi bat aurkeztu beharko da, eta barruan honako agiri hauek sartu beharko dira:

– Idazki bat, egilearen izen-abizen, helbide, email eta telefonoarekin.

– NANaren fotokopia.

– Errolda ziurtagiria.

– Artisaua dela adierazten duen egiaztagiria, horretarako eskumena duen erakundeak emana, zeinean agertuko den parte hartzaileak artisau izaera deialdi hau ALHAOn argitaratu baino lehenagotik aitortuta duela (A modalitatean aurkeztutako lanetarako bakarrik). Arabako Artisautza Erregistroan izena emanda dutenek ez dute azkeneko agiri hori aurkeztu beharrik izango, egiaztapena ofizioz egingo baitzaie, hala badagokio.

Gutun-azal horren kanpoaldean, honako hauek jaso beharko dira:

– Zer modalitatetara aurkezten den.

– Izenburu edo lelo identifikatzaile bat, aurkeztutako piezaren kanpoaldean agertuko den berbera.

Aukeran, obren egileek gutun-azalarekin batera, eta gutun-azaletik kanpo erantsi ahal izango dute erakusketan lana muntatzeko jarraibideei buruzko informazioa, eta aurkeztutako lana egiteko eta sortzeko prozesuari buruzkoa.

5. ARAU OROKORRAK

Edozein modalitatetan aurkeztutako piezek ezin izango dute eduki egilea identifikatzeko bide ematen duen inolako elementurik. Baldintza hori betetzen ez bada, pieza lehiaketatik kanpo geratuko da.

Lehiaketa honetatik espresuki kanpo geratzen dira maketak, non eta ez diren, tamainagatik edo pisuagatik, lehiaketako erakusketan erakutsi ezin diren lanen isla.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak saritik kanpo utz ditzake lanak, baldin eta atzematzen bada erakusteko esparrua kaltetu eta/edo hartan negatiboki eragin dezaketen materialak edo beste elementu batzuk daudela, berdin diolarik sariaren epaitza eman den ala ez.

6. ZUZKIDURA

Sariak honako kopuru hauek izango dituzte:

A modalitatea: eskumena duen erakundeak emandako artisau aitortpena duten pertsonentzako saria: 3.000,00 euro.

B modalitatea: artisau izaera aitortuta ez duten pertsonentzako saria: 1.320,00 euro.

Zenbateko horiei dagozkien PFEZaren atxikipenak aplikatuko zaizkie.

Sari horiek Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren 30.5.02.36.02.226.99.00 partidaren kontura emango dira.

7. AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Lanak 2021eko urriaren 27an, 28an eta 29an aurkeztu behar dira, 10:00etatik 14:00etara, BIBAT Museoaren bulegoetan (Aiztogile kalea, 54; Gasteiz).

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak izendatuko du epaimahaia, eta hark lanak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita gehienez ere hamabost egun balioduneko epean ezagutaraziko du bere epaia komunikabideen bidez.

Epaimahaia hiru pertsonak eta idazkari batek osatuko dute. Azken horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Lanen artean boto berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuak izendatuko du lan irabazlea, dagokion modalitatean.

Ahal den guztia egingo da epaimahaiaren ahalmen, gaitasun eta prestakuntza egokiko emakume eta gizonen ordezkariak orekatua egoteko. Ondorio horietarako, ordezkariak orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkariak baldin badu. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkariak daudenean izango da orekatua. Izan ere, halaxe xedatzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.5 artikuluan.

Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

9. ERAKUSKETA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak jendaurrean jarriko ditu lehiaketara aurkeztutako lanak, BIBAT Museoaren erakusketa aretoan (Aiztogile kalea, 54; Gasteiz), 2021eko azaroaren 16tik abenduaren 6ra arte.

Tamaina edo pisu kontuagatik eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz erakusketan jarri ezin diren pieza guztiak baztertu egingo dira, salbu eta lehiakideek jatorrizko lanaren maketa zehatza aurkezten badute lehiaketaren erabakia hartzen duen epaimahaiaren bilera baino lehen. Maketa horrek ezingo du metro kubikoko bolumena eta 40 kiloko pisua gainditu.

Epaimahaiak epaia eman ondoren, saririk jaso ez duten lanak eta egileak identifikatzen dituzten gutun azalak irekiko ditu Arabako Foru Aldundiak, erakusketan lanen egileak nor diren jakitera eman ahal izateko.

Baldin eta egileak lana erretiratzen badu erakusketa bukatu baino lehen, ezin izango du beste proposamenik aurkeztu Arabako Foru Aldundiak 2022., 2023. eta 2024. urteetan susta ditzakeen Blas Arratibel artisautza sarietara.

Lanen erakusketa orokorreko data igaro eta gero, lan sarituak Arabako Foru Aldundiak egoki iritzitako beste esparru batzuetan erakutsi ahalko dira, 2022ko urtarrilaren 5era arte, eta gorabehera hori pieza edo lanen egileei jakinaraziko zaie.

10. LANEN JABETZA

Bai saritutako lanak bai sarituak ez direnak egileen jabetzakoak izango dira.

11. GORABEHERAK

Arabako Foru Aldundiak deialdi hau izapidetzerakoan egon daitezkeen gorabeherak ebatzi ahal izango ditu, eta ezin izango zaio errekurtsorik jarri. Gainera, ez da izango parte hartzaileek aurkeztutako piezak hondatu izanaren erantzule, hori gertatuz gero.

12. LANAK ITZULTZEA

Saririk jaso ez duten lanak 2021eko abenduaren 14an, 15ean eta 16an jaso beharko dira aurkeztu ziren lekuan, 10:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarota, jaso ez diren piezak foru aldundi honen esku geratuko dira.

Arabako Foru Aldundiak sarituei jakinaraziko die zein egunetan eta zer ordutan erretiratu ditzaketen pieza sarituak, betiere 2022-01-31 baino lehen.

13. ERREKURTSOAK

Honako deialdi honen aurka zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza oren aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.